

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Esteribar



Aurkibidea

Udalerria: Esteribar

Sarrera



Nafarroako iparraldeko udalerria. Gaur egun herritarren ia %20 da euskalduna. Belaunaldi berriek hizkuntzaren berreskuratze-prozesuan aiton-amonei erreleboa hartu diete eta berriz entzuten da euskara ibarreko kaleetan. Hegoaldeko Goi Nafarreraren aldaera bat da Esteribarko euskara eta bereziki ibarraren iparraldean gorde da bizirik, esaterako Eugin eta Iragin. *(Argazkian Eugiko urtegia, [Fernando Goñirena, Wikipediatik hartua](#)).*

- **Biztanleak:** 2.068
- **Euskaldunak:** %17,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **26**
- Pasarteak: **36**
- Transkribatutakoak: **23**
- Audioak: **23**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Gorka Lekarozen fondoa
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Francisco - (1930)



Esteribarko Eugin jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Urtegiak etxea eta lur asko harrapatu zizkieten. Gaztetan ikazkintzan ibilitakoa. Erraz mintzatzen da euskaraz. Eugin eta Iragin daude eskualdean geratzen diren euskaldun gehientsuak.

Martin - (1922)



Esteribarko Usetxin jaioa, Atarrabian bizi da. Ahaztu samartua du euskara.

Aniceto Azkarate Zalba (1907)

Esteribarko Zai herrian (gaur egun hustuta) jaio zen arren, oso txikia zela eraman zuten Leranotzera. Ama ere Esteribarkoa zuen, Antxoritz herrikoa. Euskaraz ongi mintzatzen omen zen. Aita, berriz, Soraurengoa (Ezkaibarte) zen eta ez omen zekien euskaraz.

Domingo Bizkai Santesteban (1909)

Esteribarko Eskirotz herrikoa. Ama Setoaingoa zuen eta aita, berriz, Larraingoa (Erroibar).

Isidro Echeto Belzarena (1938)

Guraso biak Eugikoak zituen. Elixaga baserrian bizi ziren. Aita ameriketan egona zen (1913tik 1920ra). Bost senidetan hirugarrena, Eugiko eskolan ibili zen. Baserriko lanetan eta basoan ibili zen ondoren. 1963an Elginera (Nevada) joan zen osabaren arrantxora lanera (Star Sheep Company), artzain, hiru urterako. Gero Gerlacheko konpañia batean egin zituen beste bi urte. Green Card-a lortuta, Winnemucca joan zen, 1968an, eraikuntzan lana egitera. Winnemucca euskal hotelean bizi izan zen eta bere emaztea izango zena ezagutu zuen bertan (ile-paintzailea zen); ezkondu, eta hiru seme-alaba izan zituzten. 1980an Nort Valmy Power Plant argindar enpresan egin zuen lana eta 1988an Echeto Construction negozioa ireki zuen (besteak beste, telefono eta hoditeria azpiegiturez arduratzen ziren). Winnemuccako euskal klubeko presidentea izan zen 10 urtez eta NABOko Winnemuccako ordezkaria 17 urtez. Nafarroako euskara Iparraldekoarekin nahastuta dauka, Iparraldeko lagun asko izan dituelako Ameriketan.



Apolinaria Egozkue Eugi (1895)

Esteribarko Inbuluzketa herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Urbano Egozkue Gaskue (1914)

Esteribarko Eugi herrikoa. Gurasoak ere biak bertakoak zituen.

Hipolito Egozkue Paternain (1913)

Esteribarko Leranotz herrikoa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Altzuzakoa (Eguesibar).

Joaquin Garrues Goñi (1895)

Esteribarko Ilurdotz herrikoa. Gurasoak ere Esteribarkoak zituen: aita Ilurdotzekoa bertakoa eta ama, berriz, gaur egun jendez hustua den Beltzunegi herrikoa.

Celia Inda Seminario (1909-1995)

1909an Eugin jaioa, Elizaga etxean, herrigunean bertan. Ama Eugin jaioa zuen eta aita Etxalarren, eta ikazkina ogibidez. Sei senidetan bigarrena zen Celia. Gaztetan Iruñera neskato joan zen eta etxeko andreak erraten zion harrokeriagatik ez zuela erdaraz hitz egiten ez ulertzen ere. Azkenean ikasi egin behar izan zuen. Gerora Donostiara joan zen bizitzera eta Rufino Bilbao Monasterio bermeotar arrantzalearekin ezkondu zen. Bi seme-alaba izan zituzten. Azken urteetan Donostian bizi izan zen.

Anbrosia Iribarren Ripa (1926)

1926an Eugin jaioa, Azkarate bordan. Nekazaria, beraz. 1980ko hamarkada hasieran Eugiko herrigunera aldatu behar izan ziren senarra eta biak, Magnesitas de Navarraren meategia zela-eta baserria bota egin baitzuten. Azken urteetan Iruñea ondoko Uhartan bizi da. Bi gurasoak ere nekazariak zituen, aita Eugikoa eta ama Iragikoa. 6 haurride ziren (3 emazteki eta 3 gizonki), eta bera, denetan bosgarrena. Senarra ere Eugikoa zuen eta ez zuten seme-alabarik izan. Elkarrizketan Mari Karmen Perez Iribarren iloba ere ageri da.





Emilio Lintzoain (1926)

On Emilio Lintzoain Orreagako artxibozaina eta bertako liburutegiaren arduraduna da. Ama Iragikoa zuen baina bera Eugin sortu zen.

Gaspar Lintzoain Lintzoain (1932)

Eugin jaioa, Aragon bordan. Bi gurasoak Iragikoak zituen; aita oihaneko lanetan eta ikazkin ibilia, eta ama bordaria, etxeko lanetan aritzen zena. Mendi aldean bizi izan zirenez, borda (baserri) batean, Iragiko euskaraz mintzatzen da, baina, era berean, Eugikoaren ezaugarriak oso ongi ezagutzen ditu. 9 seme-alabetan (emakumezko bakarra) seigarrena da. 14 urtetan Iragira lanera joaten hasi zen, han Errekaldia etxea (kale-baserria) erosi baitzuten, eta bien martxa eraman beharra zegoen: aziendak eta abar. 15 urtetan itzain hasi zen, median zur-lote bat ateratzen. Iragira ezkondu zen, Zaldaitzenea etxera, han hartu baitzuen emaztea; egun, Etxeberrin bizi da eta lau seme-alaba ditu. Oso euskaltzalea, euskaraz erakutsi die seme-alabei eta sei ilobei. Kontalari ona. Egindako elkarrizketetako batean tarteka Marijose alaba azaltzen da.



Joakin Mari Lusarreta Linzoain (1939)

Esteribarko Leranotz herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama Iragikoa.

Joaquina Navarro Galduroz (1894)

Esteribarko Agorreta herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Jose Peña Lesa (1912)

Esteribarko Urtasun herrikoa. Gurasoak ere biak bertakoak zituen.

Katalina Rekalde Ilarregi (1904)

Esteribarko Saigots herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, udalerrri bereko Zubirikoa.

Alicia Villanueva Zandueta (1930)



Erroibar udalerriko Erron jaioa, 11 urterekin Esteribarko Usetxi herrira (14 biztanle) aldatu zen familia osoarekin. Gurasoak ere Erroibarkoak zituen: aita Errokoa eta ama Uretakoa. Usetxitik hiru kilometrora dagoen Leranotzera joan ohi ziren eskolara eta elizara. Usetxitar batekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituen. Hirurek dakite euskaraz. Neskatala zelarik dena euskaraz egiten omen zen Usetxin. Abelzaintzara dedikatu da familia. Elkarrizketa garaian, uda eta asteburuak Usetxin pasatzen zituen eta gainontzekoa Iruñean, alaben etxean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Erron sortua, Usetxin bizi da 11 urte zituenetik

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueta, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/002
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:01:04. **Bukatu**: 00:02:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Erron beti euskaraz. Baina euskaldun familia bakarra omen zen. Gerra-denboran herrian ba omen zen karabinero anitz, eta gaizki begiratzen zieten. Ama Errokoa, aita Uretakoa. Senarra, berriz, Usetxikoa.

Transkripzioa

<p>- Ni Alicia Villanueva, bai.
- Usetxikoa.
- Erron sortue.
- Erron sortue?
- Erron.
- Eta goizter etorri zine hona edo…?
- Hameka urte nituelaik etorri nintze herri hontara.
- A bai?
- Bai.
- Eta ikasi zinue euskeraz Erron edo hemen?
- Erron, Erron. Guk haurride guziek aite ta amak euskeldunek eta… haurride guziek pues… beti... etxean beti euskera.
- A bai?
- Beiño Erron ez ze… kanpon gure adiñekoek ez ze /etze/… euskeldunik.
- Ez?
- Ya… haien aite ta amek hobenean bai, biño… semek ez.
- Zuen edadekoek ez.
- Gu bakar-bakarra, gure haurride guziek gine euskeldunek. Biñon gero gerra denbora hartan, han baze karabinero aunitz ta guardia zibilek eta... Joaten ginen eskolara eta haien semek gerra denboran baziguten mania pixket euskeldunei, beti, beti [...], ez dakit norek zuen kulpe, edo ez dakigu ja ere nola zen, beiño…
- Zuen kulpa ez zen izango.
- Orduen euskeldunei ematen beitzote kulpe.
- Bai…
- Hori. Eta ez zute /etzute/ sobra ongi biletzen guri, hurrei. Eta gero, bueno… ez zute /etzute/ aitu nehi ere euskera, ez.
- Karabineroek?
- Karabineroek.
- Eta zure senarra hemengoa zen?
- Bai,

hemengoa zen, etxe hontakoa.
- Eta aite ta amak?
- Aite ta ama nongoak ziren o…?
- Bai.
- Pues ama Errokoa eta aite Uretakoa.
- Ureta?
- Ureta.</p></div>
<div data-bbox="291 163 683 178" data-label="Section-Header>
<h2>1.2. Usetxin beste batek ere badaki euskaraz</h2>
</div>
<div data-bbox="329 194 884 385" data-label="List-Group>

• **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueteta, Alicia
• **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
• **Erref**: EST-001/004
• **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:05:22
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai
• **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
• **Laburpena**: Usetxin beste pertsona bakar bat dago euskaraz dakiena. Senarrak bazekien. Seme-alabei ez zien erakutsi. Gero kexu zen alaba, ikastolara joan behar izan zuelako euskaraz ikastera. Euskara galdu duela konturatzen da. Zubirin arbasoak zituen pertsona bat etorri zitzaion grabatzera.

</div>
<div data-bbox="302 405 423 420" data-label="Section-Header>
<h3>Transkripzioa</h3>
</div>
<div data-bbox="302 421 880 822" data-label="Text>
<p>
- Solasten zen asko euskeraz? eta solasten da anitz euskeraz?
- Hemen, aunditz? ez, aundiz ez. Etxe hortako gizonak badaki euskera ere.
- A bai?
- Badaki euskera, bai. Beiño bertzek ez. Ez semek ez iñorek.
- Baina zure senarrak bazekien euskeraz.
- Nere senarrak bai, nere senarrak bazekie euskeraz.
- Eta zuk bezela egiten zun? edo beste… era batera?
- Bai, igualtsu, igualtsu, igualtsu, bai.
- Eta zuk erakutsi zinan euskeraz zure seme-alabei?
- Ni… ez, gu beti yolasten ginue erderaz etxean eta… horgatik erraten zuen /ertentzuen/ alabak.
- Alabak?
- Alabak. ”Es cosa rara que tengamos los padres vascos y tengamos que ir nosotras a aprender el euskera a la ikastola” horgatik erraten zuten /ertentzuten/, klaro.
- Eta zergatik, hori?
- Eta zengatik? pues, klaro, berai iruditzen zekion pues ikasi behar ginuela etxean euskeraz, etxean, klaro, biño bueno, guk ez ginue orduen... Ez ginuen /ezkinuen/ ja ere euskerendeko, kontran ez ginuen ja ere, osea... enpeño ere ez, ez ginuen /ezkinuen/.
- Baina hala eta guztiz ere ez dozu euskerarik galdu. Euskera mantendu duzu.
- Ya beiño… bai, beiño ez, galdu dut aunditz, e! galdu dut aunditz, bai.
- Baina [ahoskatzen] duzu ongi.
- Ongi? Ez dakit /eztakit/. Pues hemen egon tzen, nor da? Zubrin badu, a! horren... egon tzen andriain aite ze Zubirikua.
- Zeinen…?
- Arrieta. Neri zu torri zaren… grabatzera torri zena, bai, ze haren, osea, horren andria, bueno, horren andriain aite ze Zubirikua, eta duikebe harek erran tzion, nola era? eta [...] yolastu zire telefonoz, eta gelditu ginen nola…</p></div>
<div data-bbox="291 873 559 888" data-label="Section-Header>
<h2>1.3. Iregi oso herri euskalduna</h2>
</div>
<div data-bbox="329 902 653 949" data-label="List-Group>

• **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueteta, Alicia
• **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
• **Erref**: EST-001/007

</div>

- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:09:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Euskara
- **Laburpena:** Iregin denek egiten omen dute euskaraz. Andaluziatik etorritakoak ere ikasten omen du. Alaba zaharrenak han ikasi zuen "xarmanki". Bigarren alabak ere ikasi zuen. Euskazale handia omen da. Hirugarrenak ere badaki pixka bat. Semeak ikastolara bidaltzen ditu.

Transkripzioa

- Iregire ere joaten tzara?
- Orain joan behar gara.
- Orain joan behar duzu?
- Bai, hau bukatu ta... joanen gara.
- A, pues neri entrebistatu zirenak ere, Iregira joan tze gero.
- A bai, e?
- Nori egin behar diozu, Jesus...
- Ez dakit, erran daukue herri guztia dela euskalduna, orduan, ez dakit ba...
- Bai, bai, bai, Iregin herri guzie.
- Bai, e?
- Euskaldune, bai, bai.
- Herri guztitan galtzen ari da eta han ez, e? han guziak dire euskaldunak?
- Han bueno... han hara etortzen bada Andaluziatik ere bat ikesiko du euskera.
- A bai, e?
- Bai, bai, bai.
- Hain euskalduna da?
- Bai, bai, bai.
- Ze hemen herri guztitan galtzen ari da, Eugin eta guzietan eta...
- Bai beiño Iregin bezala... ez dakit, hoiiek, hor ez da galtzen.
- Ongi da hori.
- Egon tzen nere alaba zarrena, egon tzen Iregin urte batez eskolara joateko. Hemendik joan behar tzute Leaontza eta han bagenituen ahaidiak, eta... o, joateko harara eskolara, joateko harara eskolara, egon tzela berekin gustora te. Joan tze, gaztia baitze, eta hemendik bakarrik joan behar tzue Leanotza, orduan ez ze /etze/ karreteraik ere. Eta joan tzen, ahaidien etxera eta ezen konte oi ikasi zu euskera, xarmanki ikasi zu.
- Bai, e?
- Bai bai, xarmanki.
- Zure zenbatgarren alaba hori?
- Haundiena.
- Haundiena, zaharrena.
- Lenbizkoa, bai, zarrena.
- Zenbat dituzu, hiru?
- Hiru.
- Hiru alaba.
- Orduan lenbizikoa han ikasi zuen euskeraz.
- Han, han han, bai, han, xarmanki ikasi zuen.
- Eta bigarrenak ere badaki euskeraz?
- Bigarrenak hobeki daki, beiña hori, bueno, hori joan da aunditz ikastolara eta baldin bedan edozein reuniona edo... Ez dakit, nik "reuniona" erraten dut, horrela erraten diozue zuek ere?
- Bai, bai...
- Horrek izein du bere izena, ez?

- Bai.
- Junte o...
- Guk ere hitz erdera anitz.
- Ya ya, bueno, pues, baldin beda patrilletan, baldin badire norbait euskeraz jolasten, harara.
- Bigarrena?
- Bigarrena, bai.
- Ordun, euskalzale amorratua.
- Bai, bai, bai, bai, bai...
- Ta zer, pozik sentitzen zara hola ikusita?
- Beno..., ez zaide inportatzen, nik ez diot, nik ez diot ematen...
- Ez diozu garrantzirik ematen...
- Ez, ez, ez, ez...
- Ta hirugarrenak ere badaki?
- Hirugarrenak guti daki; semeak bai, semeak joan dira ikastolara, San Fermin ikastolara.
- Alabaren semeak.
- Bai alabaren gaztenaen semeak.
- Orduan berak ere badarama barrenean euskal zaletasuna, semak ikastolara bidaltzen baditu.
- Bai, bai, semeak ikastolara.
- Zenbat seme ditu?
- Bide, bide, bat hamasei urte ta bertzeak hemezortzi.

1.4. Eskolara Leranotzera

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zanduetza, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/012
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:15:11. **Bukatu**: 00:16:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara hasi zirelarik erdara nagusitu zitzairen. Leranotzera joaten ziren, hiru km-ra dagoen herrira. Lehen euskaraz "xarmanki" egiten zuen baina orain "neketan".

Transkripzioa

- Bueno, gero, gero, ba, pues eskolara joaten ginelaik eta hola, pues, erderaz, erderaz eta gehiago gu.
- Hemen eskolak bazeuden, bazegoen orduan?
- Ez Leantza joan behar ginen.
- A, Leantzen bazegoen?
- Bai, beitiko herri hortara, bai.
- Hiru kilometro oinez.
- Bai, hola izein de.
- Eta gero hiru kilometro...
- Bai.
- Gorantz.
- Bai. Eta... ba, orduen...jolasten ginen gure artean zerbait euskeraz, beñio iago erdaraz.
- A bai? gehiago erderaz.

- Eta gero joan zen... atzentzen, uzten, uzten euskera te ya eskolan, pues ya... kanbiatzen du.
- Eta hala eta guztiz ere, ondo mantendu duzu.
- Nola?
- Hala eta guztiz ere ondo gordetzen duzula euskera, ondo mantendu, ondo...
- Bueno ez, ni...
- Ondo jolasten duzula euskeraz.
- Ni le, bueno ni Erron nintzelaik jolasten nuen xarmanki, orain neketan, euskera neketan.
- Kostau pixkat.
- Bai, neketan.

2. Aisia

2.1. Bista ederrak daude Usetxitik

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueta, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/006
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:06:11. **Bukatu**: 00:06:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Goi aldetik Iruñea eta Ultzama ikusten dira.

Transkripzioa

- Bista pollita...
- A! Bixte...
- Hainbeste gauza ikusten dire.
- Bai, bai, bixta pollita. Pues igaten bazara goiti hartara, ta badu bertze bat /bertzoat/ gorago ta... ezagun da /zaunde/ handik Iruñe, Ulzama dena... bueno... ezagun da /zaunde/, bai, handi, bai, aunitz.
- Baina kotxez jun daiteke gora?
- Goitiraiño ez, ez. Juaten dire... bai... puskat joaten dire... baiño, bueno... Ez dago /eztago/ piste sobra ona ere ez, baiño Land Rover hoiekin... hoiekin bai joaten dire.
- Kotxe txikiekin ez.
- Kotxeekin ez da hain...
- Iragitik gora [ere] ikusten da bista handia... Iragitik gora...
- Bai, Iregire...

3. Baserria

3.1. Uda eta asteburuak Usetxin

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueta, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/009
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:12:22. **Bukatu**: 00:13:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Usetxiko etxean norbait denean, bera ere bai. Asteburuak eta uda herrian pasatzen ditu, baina bestela Iruñean, alabaren etxean.

Transkripzioa

- Etxe eder honetan zu bakarrik bizi zara?
- Bai, beiño... ni etortzen naiz larunbatetan. Beno, ni tortzen direlaik alabak eta beren senarrak, orduen...
- Etortzen zara zu?
- Bai, egoten gara hemen.
- Bestela zu ez zara hemen bizi?
- Bueno, hemen nago noiznei, beiño... beti ez, baldin beda hemen norbait, hemen nago ni, beiño bertzenaz ez, ez, joaten naiz alabekin.
- Ba hobeto.
- Ba, berak ematen direte, beiño etortzen gara noiznei. Orain "por ejemplo" joan den hilabetean "julio" eta "agosto" hemen gaude.
- Ya, bai.

3.2. Elurra zenean, ardiak eta behiak etxean

- **Hizlaria(k):** Villanueva Zanduetza, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** EST-001/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Elur asko egiten zuen lehen. 800 metrora dago Usetxi. Elurrarekin behiak eta ardiak etxean izaten zituzten baina behorak eta ahuntzak mendia. Denetarik zuten: behiak, behorak, ardiak, txerriak, oiloak...

Transkripzioa

- Nola?
- Elurra anitz egiten zue hemen?
- Elurre?
- Bai, elurre.
- Buenooo, lehen aunitz iten zue.
- Ze hau anitz alto da, ez?
- Joan den urtian egin zuen ere, joan den urtian...
- Zenbat metrotara dago hau itsasotik? Mila metro...?
- Ochocientos.
- Asko, oso goian dago.
- Hori... Erroko... El alto de Erro, el puerto de Erro.
- Bai bai, el puerto de Erro.
- Harrekin [dago] hau. Han ere ochocientos, ochocientos harrek ere.
- Orduan, orain ere, elurra egiten duenean, laister zurituko du hemen.
- Bai, bai, bai, bai.
- Ba orduan bizimodua zaila izango zan, bizimodu gogorra.
- Bai bai, gogorra. Bai bai bai, gogorra zen, gogorra.
- Haziendarekin bizi zineten, abereekin...?

-Hazienda bai, denak etxean.
 -Abereak: ahuntzak, ardiak...
 -Ahuntzek, bihorrak eta ahuntzek beti antzen ziguten mendien, beheak ez.
 -Mendian bazen larrea?
 -Beheak eta ardiek beti ya etxean, beti etxean. Beño, beño...
 -Ardiek ere bai?
 -Ardiek bai, bai, ardiek beti etxean.
 -Zenbat ardi zenituzten?
 -Bueno pues hiruretanogei... ze lehenbixi eukixe gindue ehun ta berrogei o berrogeita hamar, beño gero pixke-pixke gehiago, pues [izaten] ginue hirurogei pasa.
 -Lan asko ta gero...
 -Bai, eta gero genitue bihorrak, ahuntzek, beheak...
 -Zenbat behor?
 -Tzerriek, oiloak... denetaik! denetaik!

3.3. Ahuntzak, behorak eta axuriak

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zanduetza, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/017
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:21:22. **Bukatu**: 00:23:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Gaztarik ez zuten egiten, "menatzak" baitziren ardiak. Ahuntzak Adorraga mendira eramaten ziren eta han bazkatzen zuten. Haitzaren azpian Leazkue dago. Moxalak San Ferminetako ferian saltzen zituzten. Axuriak ere saltzen zituzten, baina ardi zaharrak etxean jaten ziren.

Transkripzioa

- Etxean gaztaia?
 - A, bueno, gazta...
 - Gazta ez?
 - Ardiek ez zire gazta iteko, hortako menatzak.
 - Ta saltzeko eta hola ez.
 - Ez, ez, ez, ez.
 - Eta bizimodua, nolan ateratzen zen? bizimodua, sosak, nondik ateratzen ziren? gaztarik ez... nondik atratzen zenuten sosak?
 - Nondik atratzen ginue sosa?
 - Bai, atratzen genuen sosak, guti ze atratzeko. Sos guti ze atratzeko. Ez ze /etze/ hartzen dirurik!
 - Eta altura hontan bazen bazkia, bazkia edo larreak, bazka, ganaduak jateko belarra-eta bazen hemen goiti?
 - Belarra? mendien? mendien? bai, mendie ona zuen.
 - Eta nora eramaten zinuzte? ardiek eta, zera, ahuntzek eta hoiek? hor [...] edo...
 - Ahuntzek mendire, mendire, eta ibil... harrapatzen duten bereak. Gero sartzen ziren Adorragan, mendi bet, peña handi bet bazen han, bueno... eta...
 - Hortik aldera, herritik gora?
 - Ez, Ulzama aldera, osea, Egozkue eta bertze...

- Leazkue?
 - Leazkue. Horrata, bai. Leazkue harrapatzen tzuen...
 - Bai mendi hori.
 - Bai peña gaiñetik ikusten tzu Leazkue te, herri aunditz, Etsain ere.
 - Gero, behorraren umea saldu egiten zenuten edo... dirua ateratzeko?
 - Bai... pos bai, saltzen ginue.
 - Nola deitzen diozue behorraren umeari? moxala?
 - Ez, pottokua.
 - Pottokua.
 - Pottokua.
 - Hori saldu eta horrekin.
 - Ta bi urte zituelaik, bueno, potrak zirelaik, uzten ginue aitzineako, yako, pues hori, kentzeko, bueno, baitzuk, igual salduko zute, beiño, zerenai... nola erden da, machos, o potros.
 - Arrak, bai?
 - Arrak, arrak.
 - Bai, arrak saldu. Sanferminten ematen zuten.
 - A bai?
 - Sanferminten feriara.
 - Eta hortik diru pixkat...
 - Ta saltzen zute ere.
 - Han ere zeozer saldu.
 - Ta gero... axuriek, saltzen... saltzen giñuen.
 - A bai.
 - Ta gero... ardi zarrak.
 - Ardi zarrak.
 - Ardi zarrak etxen ere hiltzen gintuen te... iten ginue gisau ederra.
 - Bai, bai, jateko?
 - Jateko. Bai, bai.

3.4. Eugin egur-loteak zozketatzen ziren

- **Hizlaria(k):** Villanueva Zanduetza, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** EST-001/020
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:26:23. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Eugin egur-loteak zozketatu eta gero bakoitzak saldu egiten zituen, baina Usetxin ez.

Transkripzioa

- Lana egiten zen orduan? egurra moztu, oihanean, oihanean, zuhaitzak o arbolak moztu, eta atera, saldu?
- Bai, bai, bai.
- Eta horrek ere dirua ematen zun?
- Bueno, hemen ez ginuen /ezkinuen/ saltzen ez, hemen ez zego /etzego/... por ejemplo, Eugin eta Iregina ere bai, iten tzute sortean, hori... lotiak. Lotiak. Ematen tziote... etxe bakarrai lote bat o bide, eta haiek iten tzute pues saltzeko; gero etxeko, pues, ematen tzute aparte, beiño berak arreglatzeko era o saltzeko te hartu dirue pues ematen tziote, hori laguntzen tziote aunditz. Beiño hemen ez.
- Diru dexente ematen zuen.

4. Familia eta harremanak

4.1. Familia handiak Usetxin

- **Hizlaria(k):** Villanueva Zanduetza, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** EST-001/011
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- **Laburpena:** 11 urterekin aldatu zen familia Erratik Usetxira. Maizterrak ziren Erron. Usetxiko familiak oso handiak ziren, asko hamar seme-alabatik gorakoak. Denek euskaraz egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta Usetxin, e... zu txikin zinelaik, e... jende asko bizi zen? jende aunitz bizi zen? Usetxin, jende asko, jende aunitz...
- Ez, guti, guti.
- Lenago, lenago...
- A, lenago bai, oi, familie bakarra...
- Non ezkondu zinen ze txikitan Erron hemen ez, bai, hamaika urtekin, hamaika urtekin ya hemen.
- Ez, ez, ni hamaika urtetan etorri nintzen hara.
- A, neskame bezala?
- Ez hori...ez zuten etxea...ez ze etxea guria. Kaseros, nola erten diezue zuek? maizterrak.
- Maizterrak zineten.
- Maizterrak eta hemen bazela...
- Gurasoekin hona etorri zinen, orduan.
- Bai, familia guzikin.
- Bai, bai, bai, bai, maizterrak zineten.
- Bai eta honera etorri ginen, etxe hontara ez, bertze hortara.
- Baina zure senarra hemengoa da?
- Bai, nere senarra hemengoa, etxe hontakoa, beiño ni, gu joan ginen bertze etxe batera, hor goiti.
- Eta gero hemengo gizonarekin...
- Bai, bai.
- Ezkontzea tokatu zitzaizun.

- Bai, bai, bai, bai.
- Bueno, tokatu edo aukeratu edo...
- Bai, bai, bai.
- Eta jende anitz, hemen, Usetxin, jende aunitz?
- Orduen bai, bai, zenbat haurride gine etxe bakarrian?
- Bai, e?
- Etxe hortan bazire... hameka anai-arreba.
- Hameka?
- Etxe hortan.
- Ama gaixoa.
- Goitiko etxe hartan zire lengusuek, osea, amak ahizpek, eta han bertze hameka.
- Hogeita bi etxean.
- Gu hamahiru, horregatik erten dizut, oi oi...
- Eta denak euskeraz egiten zenuten orduan txikitan?
- Hor bai, bai, bai, bai, euskeraz.
- Zuek betetzen zenute herri guzie.

5. Ohiturak eta bizimodua

5.1. Elizara ere Leranotzera

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueta, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:16:13. **Bukatu**: 00:17:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Leranotzera joaten ziren elizara. Usetxiko eliza hondatuta dago aspalditik. Beldur da botako dutela. Osteritzekoa ere botata dago. Leranotzen izaten da meza noiz edo noiz.

Transkripzioa

- Apeza ez, Leanotzen ze apeza ere.
- Leanotzen?
- Bai.
- Hemen ez dago elizarik?
- Eliza bada.
- Eliza bada, baiño dago arrunt estropeatue dago.
- Ta aspalditik ez dago mezarik?
- Ez ez, ez dago, ba, ez dago, arrunt estropeatuik dago, hertxi dago.
- Pollita da eliza, e?
- Pollita?
- Txiki-txikia.
- Bai, baiño ez, arront hondatuik dago. Nahi zuten arreglatu, biño... arzobispora iten zuten... galdi iten zuten, baiño ez tzuten herri... orai ez da apezik.
- Orduan ya...
- Orai eliza aunditz hertxi daude .
- Leanotzen ere bai, ez?
- Leanotzen, bueno, Leanotzen noizbehinka izaten da meza, igandetan izaten da meza, ez igandero beiño...aunditz torri deikelaik apeza, pues, izaten da meza, beiñon hemen ez; beno hemen eztike sartu ere elizera

orai, ez, ez, dago arrunt hondatuik.
 - Ya... arreglatu egin behar, bestela.
 - Arreglatu... hori botatzen delaik kendu inen dute.
 - Bai?
 - Ui, ez dakit, ni beldurre dut, botako dela hori, Osteritzen, han... herri bet...
 - A bai Osteritzen ikusi dut...
 - Bota zen.
 - Eta oai hilerria, zementerioa.
 - A bai, bai.
 - A ta bota zute? Osteritzen?
 - Bota bota zuten...? ez, bota zekiote.
 - A, bota zekiote?
 - Bota zekiote, bai, bota zekiote, la torre o nola erraten da.
 - Torrea.
 - Torrea, bai. Eta hemengoa, ez dakit, hor dago oraiño, beiño...

5.2. Arropak albergan garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueteta, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/022
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:30:45. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Albergan (labaderoan garbitzen zuten arropa. Garbiketalaran nola egiten ziren azaltzen du. Orain agortu egin da iturria, hilabete askoan ez baitu "euritu".

Transkripzioa

- Eta hemen ere ikusi dugu alberga bat, arropa garbitzeko, arropak.
 - A, egon tzate goiti hartan ere?
 - Bai, egon ginen orain dela urtebete edo hola.
 - Oi, oi...
 - Arropak horrela garbitzen zenituzten?
 - A, gaztiak ginelaik klaro! hor iten ginuen, gero labadorak atra, atra artio. Labadorak hasi zirelaik, bueno, pues orduen "coser y cantar" erraten tzuten bezala.
 - Hori gauza ederra, labadora!
 - Bai, beiño lenbixikuak orduen, beno botatzen ziren garbitzen zizun dena, beiño gero akklaratu, pues in behar tzinuen hori, beiño orain atratzen dizute... garbie, kasi sekatuik, klaro.
 - Kasi sekatuik, bai.
 - Eta albergan nola egite, nola garbitzen zenute?
 - Pues garbitzen giñue, bueno ure putzu... ure pues egote tze garbi, garbitzen giñue zortzi [egunteik o] hola, eta gero, huste ginuen ur zikiñe dena zena eta gero betetze tzen ur garbiikin eta han egoten [...] gero. Eta ikusten ginuelaik pixkat zikindu zela, pues... beti korritzen tzue hori... joaten tzen ura gibeletik eta iten tzen..
 - Eta udan ere ematen zuen ura iturriak?
 - Bai, bai, ematen tzuen, ematen tzuen, bai.

- Altuera hontan, e?
 - Ematen tzuen, beiño orai, halako, nola, euritzen, beno, altzin hortan euritu tzuen pixket beiño uda guztian ez badu euritu!
 - Agortu da iturria?
 - Agortu de, klaro, Iruñetik kartzen digute ure.
 - Hona?
 - Bai, bai, hor goiti hortan dago depositua te... horrera eramaten dute.
 - Eta ez da euririk izan?
 - E?
 - Uda guztian ez da euririk izan hemen?
 - Ez da.
 - Udaran, udaran, udaran ez da euririk izan hemen?
 - Bai, bai, udan beti ibili gara hola. Hola ibiltzen gara.
 - Bai, euririk ez, "lluvia" ez da, euria.
 - Ya, euri... pues zenbait urtez, pues euritzen du yago edo ibiltzen gara hobeki, beiño aurten ez du batre euritu!
 - Batre, e!
 - In tzuen neguan eta primaberan in tzuen auserki, euritu ere, ta hotza ta denetaik, beiño udan ja ere.
 - Orduan batre ez.
 - Batre ez.
 - Ba gure aldian egin du, baina anitz ez, gutxi, gutxi, euri gutxi euritu du. Egiten du yarnuan jartzen da baina euririk ez du egiten.
 - Ya ya ez ez, ez du erten du egin biño, goibeltzen du, beiño gero... gero garbitzen du berriz euritu gabe.
 - Elurra ere gutxi, ta...
 - Bai, klaro.
 - Gaur da denbora, eguraldi pollita, fresko ta...
 - Bai, bai pollita dago, bai ta garbi ta...
 - Hagitz freskoa.
 - In du bero ederrak ere, e.
 - Bai, egin ditu bero galantak.

5.3. Zubiriko zubiaz zerbait

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zanduetza, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: EST-015/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Zubiriko zubiaren inguruko sinesmenak; txakurren amorrua sendatzen omen zen bertan.

Transkripzioa

- Gero hor bada... e, Zubrin, gizon bat, Cirilo Santesteban.
 - Cirilo, bai, bai.
 - Horrek kontatu ziten behin eta... ematen.
 - Horrek badaki euskera?
 - Ez daki.
 - A, horrengatik.

- Ez, hor bada zubi bat eta... denbora batez eta, arrabiatuik zeuden zakurrak-eta hor inguruan zubia in, zubia in begietatik bueltaka emanarazi eta rabia kentzen zekioten edo holako istorio bat eta.
- Ez dakit, erraten dute hori... nik aitu dut hori, orai, ez dakit hala ote zen edo ez ote zen, bieño nik aitu egin dut hori, bai, maten tziotela ez dakit zenbat buelta zakurrei zubien ingurutik eta sendatzen tzirela.
- Gero erraten dute ere badela edo bazela "aguas de batueco" edo halako iturri bat.
- Bai, bai, bai, hemen da, bai, aguas de batueco bai, hemen da bai.
- Urrin gaixtokoa edo, baiña ona omen dena osasunendeko.
- Osasunendeko, bai.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Ganadu-merkatua Uharten

- **Hizlaria(k)**: Villanueva Zandueta, Alicia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: EST-001/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:23:45. **Bukatu**: 00:26:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Uharten zen merkatua hilabeteen birritan. Zubirin baziren harakinak. Artilearekin ere hartzen zen diru pixka bat. Aretxeekin ere bai. "zaldaria" (pentsua) ere eman behar izaten zitzairen. Eurek "zaldaria" esaten zioten pentsuari.

Transkripzioa

- Non egiten ze hemen?
- Merkadue? pues merkadue ordue tzen Uharten.
- Uharteiño joaten zineten?!
- Uharten izate tze merkadue nahi bazindue txerriek saldu, o...hoietaik? pues, Uharte badakizu non den?
- Bai bai.
- Bai? pues han egite tzire bi egun hilabetian.
- Bi egun hilabetean.
- Bai.
- Eta hemen Zubirin ez zen egiten?
- Non?
- Hemen Zubirin ez zen egiten?
- Ez, ez ez, ez, ez. Hor bazire karnizeroak eta nahi zutelaik axuriek eta hori, etortzen tziren etxerat e...
- Ta hiltzen zituzten?
- Erosten tzuten etxean.
- Hortik ere sosak, orduan?
- Bueno, oi klaro, hoietak.
- Gero ardi ilea ere salduko zan.
- Bai.
- Ardiaren ilea.
- Bai, a bai, bai beiño, orduen balio tzue, orain ez du, orain ez du, orain ez dute erosten ere.

- Eta horrekin gero egiten zen haria? haria egiten zen? saldu? o, gero artilea, ilearekin ze egiten zen?

- Ellea?

- Horrekin ze egiten ze?

- Saltzen tze orduen ellea, klaro. Klaro, pues erremediatzen tzire pixket. Hartzen bazinue ellekin hori gero...

- Diru pixkat hartzen zan.

- Axuriek eta gero, ardi zarrak eta... bueno.

- Behiaren umea nola da?

- Bai... pues aratxea, bai, bai, aratxeak ere saltzen giñue, biño klaro, [...] aunditz te... gastatu ere bai iten da, aratxea gizentzeko ere...

- Pentsua, janaria...

- Zaldaria, zaldaria, hola erten duzue zuek?

- Zaldaria?

- Zaldaria.

- Zer da zaldaria?

- Pientsue.

- A hori, a bai, e? zaldaria?

- Zaldaria, guk hala erten genuen zaldaria, bueno orei pentsue, pentsue.

- [...] euskaldunago?

- Orain zaldaria... zaldaria ez nintze /enintze/ oroitzen ere orain, beiño lehen beti zaldaria.

- Hori eukaldunagoa da!

- Orain erraten badiotet gure, nere... nola erraten dire... nietos.

- Illobei.

- Bueno.

- Hori inork ez daki, e?

- Erraten badiotet zaldaria, hori, "¿eso qué es?" [erranen didate].

- A, nik ere ez nekien zaldaria zer zen, e?

- Bai, hagitzez polita, bai.

- Ez dakit nola, ez dakit nola atrari den zaldaria.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. **Suan Juan bezperako sua eta Zubiriko iturria (EST-009/001)**

San Juan bezperan su aunitz egiten ziren. Suaren inguruan salto egiten zen. Zer esaten zuten. Jendeak Zubiriko iturrira joateko ohitura zuen. Iturriaren inguruko sinesmenak.

2. **San Juan, San Anton, San Blas... ohituren nahasmena Agorretan (EST-009/002)**

Iratzeen, ukuiluen eta bestelakoen bedeinkapenak noiz egiten ziren.

3. **Erleen ziztadak (EST-011/002)**

Erleek behorra ziztatu zuteneko pasadizoa kontatzen du.

4. Inbuluzketan San Juanetako ohiturak galdurik omen (EST-013/001)

San Juan egunaren inguruko ohitura handirik ez omen zen Inbuluzketan. Ogi bedeinkatua. Esaera batzuk aipatzen ditu.

5. Leranozko San Juanetan sua egin eta "Sarna fuera" leloa (EST-014/001)

San Juan bezperan sua egiteko ohitura zuten Leranotzen. Gero, haren gainetik salto egin eta hauxe esaten zuten: "Sarna fuera, garie Española, artoa Frantziera ta sorginek ganbela pera".

6. Errege-egunaren bezperako zintzarrotsak Leranotzen (EST-014/002)

Errege egunaren bezperan zintzarri-hotsa ateratzeko ohituraren inguruan.

7. Zubiriko zubiaz (EST-016/001)

Zubiriko zubian txakurren amorrua kentzen zela esaten zen.

8. San Juanetako ohiturak Urtasunen; Zubiriko iturriaz zerbait (EST-017/001)

San Juan bezperan sua egiten zen Urtasunen eta "sarna fuera" esaten zuten. Zubiriko iturriaren, zubiaren eta bertako uraren inguruko kontuak.

9. Eugiko San Juanetan sua, jauzi egin eta leloa bota (EST-018/001)

San Juanetako ohiturak Eugin.

10. San Juan sua Ezkirotzen; gurutzeak alorretan (EST-020/001)

San Juan bezperan sua egiten zen. Gero haren gainetik salto egin eta "sarna fuera" esaten zuten. Gurutzeak egin eta bedeinkatu egiten zituzten, alorretan jartzeko.

11. San Juanetako ohiturak Ilurdotzen (EST-021/001)

San Juanetako ohiturak Ilurdotzen.

12. Zubiriko uren ospea Ilurdotzeraino hedatua (EST-022/001)

Zubiriko ura sendagarria zela esaten zuten.

13. Ilurdotzen, Eguberrietan, "oilar-meza", jolasak eta afari berezia (EST-022/002)

Gabonetako ohiturak Ilurdotzen. Meza ("oilar-meza", gaueko hamabietan), jokoak, afari berezia...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com